



Universidad del País Vasco  
Euskal Herriko Unibertsitatea

ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO  
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA



# Practicum III aren Gida

Gizarte Hezkuntzako gradua

2013-2014 Ikasturtea



**Agiri hau Gizarte Hezkuntzako Praktiketako Batzordeak egin du:**

Asier Romero, Maria José Alonso, Nekane Beloki, María Ángeles Echevarría, Lola Fernández, Ana Flecha, Arantza Gogeascoechea, Txema Hornilla, Yolanda Juanes eta Begoña Ordeñana.

**AURKIBIDEA**

<b>1. INFORMAZIOA ETA TESTUINGURUA.....</b>	<b>5</b>
1.1. PRACTICUMAREN AURKEZPENA.....	5
1.2. GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUKO PRACTICUMAREN ARAUDIA. ....	5
1.2.1. <i>Practicumean matrikulatzeko eskakizunak.</i> .....	5
1.2.2. <i>Ikaslearen eta hezkuntza-erakundearen arteko harremanen araudi erregulatuzailea.</i> .....	6
1.2.3. <i>Practicuma kudeatzeko Egutegia:</i> .....	6
1.2.4. <i>Beste gai batzuk</i> .....	7
1.2.5. <i>Practicuma egiteko egutegia:</i> .....	7
1.3. PRACTICUMAK GIZARTE-HEZITZAILEEN PRESTAKUNTZAN DUEN HELBURUA ETA ZENTZUA.....	8
1.4. PRACTICUMAREN EGITURA.....	9
<b>2. PRACTICUM IIIAREN PLANGINTZA ETA GARAPENA .....</b>	<b>9</b>
2.1. PRACTICUM IIIAREN KONPETENTZIAK.....	9
2.2. EDUKIEN DESKRIBAPEN LABURRA .....	10
2.3. PRACTICUM IIIAN IKASTEKO MODALITATEAK .....	11
2.3.1. <i>Ikasleen parte-hartze aktiboa hezkuntza-erakundeetan.</i> .....	11
2.3.2. <i>Praktika aztertu eta horren jarraipena egiteko mintegiak.</i> .....	11
2.4. ZEREGINAK ETA ARDURAK.....	11
2.4.1. <i>Ikasleen zereginak eta ardurak</i> .....	11
2.4.2. <i>Unibertsitateko irakasle tutoreen zereginak eta ardurak:</i> .....	12
2.4.3. <i>Gizarte eta Hezkuntza alorreko Erakundeetako profesional-tutoreen zereginak eta ardurak:</i> .....	12
2.5. PRACTICUM IIIAREN GARAPEN FASEAK .....	13
2.6. TENPORALIZAZIOA .....	14
<b>3. EBALUAZIOA.....</b>	<b>15</b>
<b>4. BIBLIOGRAFIA.....</b>	<b>15</b>
<b>5. ERANSKINA.....</b>	<b>17</b>
BEHAKETA EGITEKO ETA OHARRAK HARTZEKO GIDAK.....	17

“Zailak direlako, ez gara gauza asko egitera ausartzen,  
baina zailak dira  
ez garelako egitera ausartzen”  
Seneka

“Euskararen alde gauza asko egiteko prest gaude. Gure esku dago garrantzitsuena: hitz egitea”.  
Bernardo Atxaga

“Agur —esan zuen azeriak—. Hona hemen nire sekretua. Oso erraza da:  
bihotzaz baino ez da ondo ikusten. Funtsezkoa ezin da  
begiez ikusi”.  
(Antoine de Saint-Exupéry)

## 1. INFORMAZIOA ETA TESTUINGURUA

### 1.1. *Practicumaren aurkezpena*

Practicumeko Gida hau Gizarte Hezkuntzako Gradu Praktika Planean orientatzeko tresna da.

Plan berrietan indartu egin da praktikek hasierako prestakuntzan duten garrantzia eta, hala, 42 ECTS kreditu esleitzen zaizkio jarduera horri: 12 kreditu Practicum I eta IIan, eta 18 kreditu Practicum IIIan. Practicum Ia 5. moduluan egiten da, eta II.a eta III.a, berriz, 7. moduluan.

Praktikak uztailaren 15eko 13229/2011 Errege Dekretuan oinarritzen dira. Hain zuzen, Dekretu horrek ezartzen ditu Gizarte Hezitzailearen titulu ofiziala eta berori lortzeko ikasketa-planen jarraibide orokorrak; era berean, espezialitate bakoitzeko irakasgai ardatzak ere arautzen ditu. Honako agiri hauek ere kontuan hartu beharrekoak dira: 1707/2011 Errege Dekretua, azaroaren 18koa, unibertsitateko ikasleen jardun akademikoa arautzen duena; EHUko Kudeaketa Akademikoaren Araudia, IX. kapituluan, 72. artikuluan, Gradu Practicumaren oinarritzko alderdiak zehaztu eta antolatzen dituena; eta Eskolako Batzordeak onarturiko Gizarte Hezkuntzako Gradu Practicumaren Araudi orokorra.

Honako printzipio orokor hauek zuzentzen dute Practicuma:

1. ECTS KREDITUAK (European Credit Transfer System)
2. CURRICULUM KONPETENTZIAK. Gradu bakoitzak izaera bereziko konpetentzia profesionalak ditu.
3. MODULUEN ARABERAKO DISEINUA. Practicuma Graduaren egitura modularren parte da.
4. LANKIDETZA EREDUA. Ikasleek taldean eta taldearekin jardungo dute; halatan, elkarrekintzaren bidez bilatu, sortu eta ezarriko dituzte hezkuntzaren esanahiak, betiere metodologia aktiboa eta praktikoa erabiliz.
5. MUGIKORTASUNA. Irakasgai horretan ikasleen mugikortasuna sustatuko da, Europan nahiz munduko beste leku batzuetan, baina batez ere Estatuko unibertsitateetan.

Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolako Praktiketako Zuzendariordetza eta Idazkaritza dira Practicuma kudeatzeko organoak, eta beroriek arduratzen dira praktika-aldiari loturiko izapideak egiteaz, edota berari loturiko zalantzak edo arazoak ebazteaz.

Gainera, Practicumari loturiko beste eragileak ere hartu behar dira kontuan, hala nola Praktiketako Batzordea eta Irakasle Taldeak. Azken horiei dagokienez, praktikan dauden ikasleei arreta egokia eskaini ahal izateko, behar adinako irakasle-tutore kopurua izango dute.

### 1.2. *Gizarte Hezkuntzako Gradu Practicumaren Araudia.*

#### 1.2.1. *Practicumean matrikulatzeko eskakizunak.*

- 1) 7. Moduluan matrikulatuta egotea.
- 2) Practicum-II eta Practicum-III egin ahal izateko, aurretiaz Practicum-I gaindituta izan beharko da.
- 3) Praktikak EHUtik kanpo, SICUE/SENECA programan edo abarretan egin nahi dituzten ikasleak eskaintza bakoitzari dagokion araudiaren menpe egongo dira.

- 4) Garapenerako Lankidetzako praktikak egin nahi dituzten Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolako ikasleek Gizarte Erantzukizun eta Unibertsitate Hedakuntzarako Errektoreordetzaren deialdian zehaztutako irizpideak bete beharko dituzte.

**1.2.2. Ikaslearen eta hezkuntza-erakundearen arteko harremanen araudi erregulatuak.**

(Kontsultatu Practicumaren Araudia)

**1.2.3. Practicuma kudeatzeko Egutegia:**

	Practicum-III
Matrikula	Matrikula orokorraren data berberetan
Baliozkotzeak eskatzea	Gainerako baliozkotzeak eskatzeko datetan
Baliozkotzeen erreklamazioak	Epea: ebazpenaren argitalpen ofiziala egin eta 10 egun.
Kasu berezia* eskatzea	Ekainaren 1etik 15era
Kasu bereziak ebaluatzea	Epea: ebazpenaren argitalpen ofiziala egin eta 10 egun.
Esparrua aukeratzea	Erakundeen zerrenda eguneratua Eskolaren webgunean (Practicumaren leihoan) argitaratuko da, martxoaren 14tik aurrera
Esparrua eskatzea	Maiatzaren lehen hamabostaldia
Esparru eta erakundeetan izena emateko eskarien erantzunen zerrenda	Maiatzaren 1etik aurrera
Ikaslearentzako jarraibideak	Urtarrilean
Ikaslea/hezkuntza-erakunde behin betiko zerrenda argitaratzea	Uztailaren 18tik aurrera
Ikaslea/Ikasketa Eskolako Tutorea zerrenda argitaratzea.	Uztailaren 18tik aurrera
Lehen mintegia (praktikaren azterketa) Unibertsitateko tutorearekin	2014ko urtarrilaren 27ko astea
Praktikak egingo diren ikastetxera aurkeztea	2014ko otsailaren 3ko astea
Praktikako ikastetxeetako egonaldia	2014ko otsailaren 3tik maiatzaren 2ra
Memoria ematea	Maiatzaren lehen hamabostaldia
Notak argitaratzea	Maiatzean (GAUR)

\*Egutegi akademikoa aldatzea dakarten eta beste irakasgai batzuetan eragiten duten **kasu berezien** eskaera guztiak inplikaturako pertsonaren erantzukizuna izango dira, guztiz. Practicumeko irakasgaietan arreta berezia eskatzeko eskubideak ez du esan nahi arreta berezia izango denik gainerako irakasgaietan.

### 1.2.4. Beste gai batzuk

#### Praktiketako Zuzendariordetza: Kokapena

Txomin Villarroel  
Praktiketako Zuzendariordetza  
Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola  
Tel: 946.01. 75.05; Faxe: 946.01.75.00  
Sarriena auzoa z/g 48940 Leioa (Bizkaia)  
Helbidea: [practicum.eum-bi@ehu.es](mailto:practicum.eum-bi@ehu.es)

#### Baliozkotzeak

Kontsultatu Practicumaren Araudia eta Gizarte Hezkuntzako Gradurako egokitzapen-  
taulak

#### Euskarazko Practicuma gaztelaniazko ikasleentzat

Gaztelaniaz matrikulatuta egonik Practicuma euskaraz egin nahi duten ikasleek  
**euskarako B2 titulua** edo haren parekoa izan beharko dute.

#### Practicuma egiteko Esparru eta Erakundeen zerrenda

Eskari-inprimakia betetzen dutenean, ikasleek **bi** esparru hautatu beharko dituzte,  
eskainitakoen artean. Eskariaren arabera egingo da banaketa.

Ikasle batek baino gehiagok praktikak esparru berean egin nahi badituzte eta eskari  
guztiei erantzuteko aukerarik ez badago, Praktiketako Zuzendariordetzak irizpide akademikoak  
erabiliko ditu esleipena egiteko (espedientea eta gainditutako kredituak).

#### Erakundeei esleitzea

Esleitutako ikasleen eta ikastetxeen zerrenda Eskolako webgunean argitaratuko da.

#### Unibertsitateko tutoreak ikasleei esleitzeko prozedura.

Kontsultatu Practicumaren Araudia

### 1.2.5. Practicuma egiteko egutegia:

Practicum I	2013ko irailetik 2014ko urtarrilera arte
Practicum II	2013ko azarotik 2013ko abendura arte
Practicum-III	2014 ko urtarriletik maiatzera arte

### 1.3. *Practicumak gizarte-hezitzaileen prestakuntzan duen helburua eta zentzua*

Gizarte Hezkuntzako Graduako Practicumak 5. eta 7. moduluetan kokatzen da eta, beraz, koordinazio bikoitza izan behar du: gainerako Practicumekin, eta dagokion moduluarekin eta bertako irakasgaiekin.

	<b>Maila</b>	<b>Modulua</b>	<b>Kredituak</b>
PRACTICUM I	3	5	12 ECTS
PRACTICUM II	4	7	12 ECTS
PRACTICUM III	4	7	18 ECTS

Kontuan izanik lanbidearen munduan (esku-hartzeko esparru eta erakunde batean) murgiltzea dela Practicumaren helburua, praktika-aldian gizarte-hezitzaileen eginkizun profesionalak garatzeko lan egingo da; hau da, diagnostikoa, plangintza, esku-hartzea, ebaluazioa, berrikuntza, ikerkuntza eta trebakuntza.

Gizarte-hezitzaileen hasierako prestakuntzan, honako alderdi hauek hartzen ditu Practicumak:

1. Practicumak lanbidean txertatzeko prozesua bultzatzen du, eta unibertsitatearen eta lan-munduaren arteko lotura-eginkizuna du. Practicumean, ikasleak lanbide-kulturan sartzen dira eta, horri esker, gizarte-hezkuntzako profesionalen lan-moldeak eta nolakotasunak ezagutzeko aukera dute. Profesional-taldeetan lan egiten denez, ikaslea “praktiketako profesional” bihurtzen da eta, horri esker, beraren potentzialtasunak eta zailtasunak ikusteko aukera dago. Hezkuntza-testuinguru desberdinetan esku hartzen denez, profil profesionalen alderdi desberdinak nahiz komunak identifikatzeko aukera dago. Practicumak da prestakuntzaren esparruan profesionalizaziotik hurbilen dagoen osagaia: teoria eta lanbide-egutza bateratu, bi esparruen arteko kontrastea egin, eta zientzia-egutzan oinarritutako egutza profesionala eraikitzen laguntzen du.
2. Practicumak teoriaren eta praktikaren arteko lotura denez, prestakuntza teoriko-praktikoan egindako ikaskuntza testuinguruan kokatzeko aukera eskaintzen du. Izan ere, esku-hartzeen ereduak, antolaketa- eta kudeaketa-ereduak, hezkuntza-harremanetarako ereduak eta abar aztertu eta kontrastatzen ditu, arazo eta egoera profesionali buruz hausnartu eta era kritikoa ebatzi ahal izateko.
3. Practicumak komunikazio-prozesua denez, “eragileek, argudioen bidez, euren ikuspuntuak adieraz ditzakete, eta argudio horiek oinarritzen diren ideologia identifikatzeko aukera dute; halatan, azterketa horretan oinarrituz, errealitate zuzenagoa, solidarioagoa eta berdintasunezkoagoa garatzeko pentsaera eraiki ahal izango dute” (Sáez, 1996). Gainera, ikasleek egiten dituzten jarduketak ez ezik, egiten, sentitzen eta galdetzen dutenari buruzko hausnarketak partekatzeak aukera ere eskaintzen du. Hartara, hezkuntza-errealitatea zalantzan jarri eta bultzatu beharreko aurrerakuntza-ildoak era autonomoan bultzatu ahaliko ditu.
4. Errealitate profesionala aldakorra dela eta etengabe berritzen dela -etengabe aldatzen den gizartearen premiei erantzun behar dielako- aitortzen laguntzen du Practicumak eta, ildo horretatik, ikasleek konplexutasun profesional hori ezagutzeaz gain, bertan sakontzeko aukera ere izango dute. Gauzak horrela, bere garapen pertsonalean eta profesionalean nahiz arreta eskainiko dien kolektiboan garapenean, etengabeko prestakuntzak zer



garrantzia duen jabetzen da ikaslea. Hezitzaile ooren lanak dituen balio komunak onartuta ere, orotariko egoera eta eskakizunak daudela kontuan hartuta, komenigarria da ikasleek praktika-esparru bat baino gehiago sakon ezagutzea. Horri esker, ezagutza profesionalaren baliabide konplexuagoak eskuratuko ditu, eta gizarteko eta hezkuntzako errealitate berrietara egokitzeko prestatuko da.

#### 1.4. *Practicumaren egitura*

	PRESENTZIALAK (orduak)				EZ PRESENTZIALAK	GUZTIRA (orduak)
	Erakund eak	Jardunaldi ak	Prestakuntz a mintegiak	Praktika aztertze ko mintegiak	Norberaren lana	
Practicum I	100	10	20	20	100	250 (50 ordu AIM)
Practicum II	125	10	20	20	125	300
Practicum III	<b>220</b>	-	-	<b>25</b>	<b>205</b>	<b>450</b>
GUZTIRA	445	20	40	65	430	1000
GUZTIRA + AIM						1050

## 2. PRACTICUM IIIaren PLANGINTZA ETA GARAPENA

### 2.1. *Practicum IIIaren konpetentziak*

DeSeCo proiektuak honela definitzen du konpetentzia: "eskaera konplexuei erantzun eta orotariko zereginak egoki betetzeko gaitasuna". Trebetasun praktikoak, ezagutzak, motibazioa, balio etikoak, jarrerak, emozioak eta beste gizarte- eta jokabide-aldagai batzuk lotu eta batera mugiaraztea da, ekintza eraginkorra lortzeko". BOLIVAR, Antonio eta PEREIRA, Miguel Ángel (2006).

Definizio horren arabera, jardun didaktikoa bideratzeko, garrantzitsuagoak dira prozesuak, helburuak eta emaitzak baino. Kontua ez da ikasleek zer "estudiatu" behar duten, eta bai zer "ikasi" behar duten, orotariko testuinguruetan eta egoeretan (hezkuntza-eremuan, baina bizitza pertsonal, sozial, politiko eta ekonomikoaren erreferentzia etengabeekin) eskuratzen dituen baliabideak sortuz eta erabiliz. Horiek guztiek edozein jarduera egituratzen duen "egitura dinamikoa" osatzen dute eta, zentzu horretan, etorkizuneko esperientziako alderdi guztietan konpontzen lagunduko diote, ikasketa etengabe eta progresiboan.

Practicuma “konpetentzia kokatu” horiekin topatzeko aukera paregabea da; hau da, egoerak testuinguruan tratatuko dituzte, prestakuntza amaitu ondoren bizi izango dituzten moduan. Lanbide-mundura egindako jauzi horretan, ikasleek mundu hori barneratuko dute, argudioz epaitu eta eraldatu egingo dutelako; alegia, “hezurmamitu” egingo dute. Gauzak horrela, konpetentziak hezkuntzaren eta eraldatutako munduaren artean jorratzen den bidea edo metodoa ere badira: zer egiten dugun eta, era hausnartuan, jardun eraldatzailean zer ikasten dugun. Ikasleak euren ikaskuntza eraikitzen duten izaki autonomoak dira, eta gauza bera esan liteke praktika-aldian ikasleekin elkarrekintzan ari diren eragileei buruz.

Practicum IIIa eraldaketa-prozesu horren azken fasea denez, alderdi berritzaileetan jarri behar du indarra, hala nola berrikuntzan, taldeko elkarrekintzaren azterketan, azterketa kritikorako gaitasunean eta sormenean. Hartara, hezkuntza-fenomenoak nahiz arauak batera barneratuko dira, balioak baitira edozein hezkuntza-ekintzaren gida eta helmuga. Horrenbestez, konpetentziak jarraian azalduko dugun bezala gauzatu beharko dira:

1. Gizarte Hezkuntzako testuinguru profesionaletan esku-hartzea, arduraz eta autonomiaz, balioak erreferentziatzen hartuta.
2. Ezagutza lankidetzan eraikitzea; ez soilik “jakiteaz” eta “egiteaz”, eta bai, batez ere, “izateaz” eta “izan behar izateaz”, betiere praktika etengabe aztertzearen bidetik.
3. Gizarte Hezkuntzako erakundeek lana eta kultura aztertuko dituen argudio-bidezko komunikazio hausnartu eta kritikoa garatzea eta, horretarako, ahozko edo idatzizko txostenak eta beste adierazpen-molde batzuk erabiltzea.
4. Hezkuntza alorrean esku hartzeko proiektua diseinatzea, eta hori txertatu eta ebaluatzea.
5. Diziplina anitzeko eta erakunde anitzeko taldeen barruan lankidetzan eta elkarrekintzan positiboa.

## **2.2. Edukien deskribapen laburra**

Gure praktikan metodo kritikoren balioa lehenesten dugu, errealitatearen ikuspegi partzial eta interesatuetan oinarritzen diren curriculum-edukien aurretik. Ikuspegi horretatik, practicuma “metodo-eskolak” dira, eta haren edukiak “arazoak” edo “giza egoera arazoak”.

Arazoak aztertzean oinarritzen den hezkuntzak zalantzan jartzen ditu jakintzat ematen diren edo ekintza tekniko eraginkortzat aurkezten diren irakaskuntza-egoerak. Horrela jokatu beharrean, beraiekin batera aztertzen du inplikaturako pertsonen ingurunea, pertsonak duen bizimodua era kritikoa eta autonomoa ulertu behar duela defenditzen duelako. Mundu hori ez da aurretiaz zehaztutako errealitate egonkorra, prozesuan dagoen errealitatea baizik, hots, gizakien erabaki libreen bidez eraldatu ahal izango den errealitatea.

Horri logikoki eta moralki atxikita, ulertu eta eraldatzea helburu dituen hezkuntza horretan ikaslea da protagonista, beste eragile batzuekin batera, kultura-esanahia interpretatu, sortu eta eraldatzeko prozesuetan. Edukiak eta errealitatea bera, ekintzaren, argudiatze hausnartuaren eta adostasunaren emaitza dira.

Practicum IIIak errealitate sozio-profesionalaren munduan txertatzea eta inplikatzeko dakarrenez, ekimena, zentzu kritikoa, talde-lana eta sormena pizteko gai izango den metodo horretan oinarritu beharra dago. Gizarte- eta hezkuntza-alorreko programak/proiektuak diseinatzea, abian jarri eta ebaluatzea, eta parte hartzeko metodologiak diseinatu, aukeratu eta erabiltzea, prestakuntza fase horretako funtsezko elementuetako batzuk dira. Besterik

gabe “profesional” bat bilatzea baino gehiago, errealitate profesionalek ikasleei eskatzen dieten eremuetan taldekako eta banakako emantzipazio-prozesua garatu nahi da. Jokabideari eta emozioei loturiko osagaiak, gizarte-ikuspegi kritikoarekin batera, ezinbesteko elementuak dira gizarte-hezitzailearen ondarean. Halatan, bada, eraldaketarekiko konpromiso etengabea, lan bateratua, hausnartua eta esperimentalak nagusitzen den eremu batean, gainditu egiten da prestakuntza kontzeptuala.

### **2.3. Practicum IIIan ikasteko modalitateak**

Ikasleak eginez egiten ikasten duelako mitoa berriz aztertu behar da edo, behintzat, ñabardura batzuk ezarri behar zaizkio. Eginez ikasi baino, ikasleak egiten duena aztertuz eta horri buruz hausnartuz ikasten du. Horri esker jabetuko da nola eta zergatik egiten dituen gauzak, zer beste aukera egon daitekeen, eta zer ondorio izan ditzaketen. Hausnarketa eta ekintza batera garatu behar dira, baldin eta jokabide egokiak, hau da, zientzian oinarritutako jokabideak, garatzen lagundu nahi badugu. Horrek esan nahi du praktikan landu behar dela, baina bertan agertuko diren kontraesanak eta ezagutza-mailako arazoak azaleratzeko moduan, eta hartzen diren erabaki praktikoek hezkuntzan, gizartean eta politikan izango dituzten ondorioak aztertzeko moduan.

Hausnarketa da ekintza bidezko ikerkuntzara eramango gaituen ikaskuntza-metodo aktibo nagusia. Ekintza bidezko ikerkuntzak, bere aldetik, ekintza praktikoan agertzen diren gaiei irtenbidea eman nahi die, ikasleek ikaskuntza sakona eskuratu eta ikasleengan jarduera profesionaleko aldaketa-egoerak sustatzeko.

Prestakuntza-prozesua honako modalitate hauetan garatuko da:

#### **3.2.1. Ikasleen parte-hartze aktiboa hezkuntza-erakundeetan**

Garrantzitsua da ikasleek aukeratutako erakundeetan inplikatzeari, eta kolektiboek nahiz erakundeak dituzten premien azterketa eta diagnostikoa egitea. Errealitate horretaz egin duen azterketan oinarrituta, erakundearekin adostutako proiektu propioa txertatu eta ebaluatuko du.

#### **2.3.2. Praktika aztertu eta horren jarraipena egiteko mintegiak**

Mintegi horien helburua hau da: hainbat esparrutan praktikak egiten dituzten ikasleek, azterketa hausnartuaren bidez, gizarte- eta hezkuntza-errealitate desberdinetako ikuspegiak eta bertan gizarte-hezitzaileak barneratzen dituzten eginkizunak partekatze eta kontrastatzeko eremua irekitzea, prestakuntza-premietan nahiz teorian eta praktikan sakontzeko.

### **2.4. Zereginak eta ardurak**

#### **2.4.1. Ikasleen zereginak eta ardurak**

- Practicumeko faseak ezagutu eta horietan parte hartzea (informazio-bilerak, plazen banaketa, memoria ematea...), eta egoki betetzen laguntzea.
- Irakasgai programaturako mintegi, jardunaldi eta jardueretan izan eta parte hartzea.
- Erakundeak proposaturiko zereginetan parte hartze aktiboa izatea.
- Ikastetxera puntualtasunez joateko baldintza betetzea, eta bertako araudia errespetatzea.
- Ikasteko jarrera positiboa izatea, eta berrikuntzarako eta esku hartzeko ereduak sortzea.

- Praktika-aldian garatutako jardunari lotuta, konfidentzialtasuna eta lanbidearen kode deontologikoan dauden gainerako jarraibide etikoak errespetatzea.
- Esleitutako tutoreari laguntzea, Unibertsitatekoari nahiz Erakundekoari.
- Practicumean parte hartzen duten eragile guztiekin errespetuzko harremana izatea.
- Erakundearekin adostutako esku-hartze proiektua diseinatu, txertatu eta ebaluatzea.
- Amaierako memoria egitea, eta bertan jartzea Practicum IIIko prestakuntza-prozesuaren txostena eta Practicum I, II eta IIIari buruzko hausnarketa kritikoa.

#### **2.4.2. Unibertsitateko irakasle tutoreen zereginak eta ardurak:**

Ikasleekiko:

- Esleitu zaizkion ikasleak hartu, lagundu eta arreta eskaintzea; horretarako, jarraibide egokiak eman eta ikastetxean egin beharreko lana bideratzea.
- Ikasleei Practicumaren programa ematea eta eskura dagoen dokumentazioari buruzko informazioa eskaintzea.
- Ikasleekin lehen aldiz biltzen denean, azterketarako mintegien egutegia zehaztea.
- Ikasleei teoriaren eta praktikaren artean dagoen lotura garrantzitsuaren berri ematea.
- Praktiketako ikasleekin aurreikusitako mintegietan parte hartzea, esku hartzeko esparruetatik jasotako esperientziak partekatzeko.
- Ager daitezkeen arazoei taldean irtenbidea bilatzeko eta bizi den prestakuntza-prozesuari buruzko hausnarketa egiteko dinamizazio-lana egitea.
- Ikasleei Praktiketako Memoria egiten laguntzea, eta ezarritako jarraibideen arabera, memoria hori baloratu eta kalifikatzea.
- Practicum-aldia kalifikatzea, ikasleek aurkezturiko lanak, erakundeko tutoreak egindako ebaluazioa eta praktiketako jarraipenean egindako behaketa kontuan hartuta, eta betiere irakasle-taldeak adostutakoan oinarrituta.

Antolakuntzako gaiekiko:

- Tutoreen arteko eta instituzioen arteko koordinazioa sustatzea, Erakundeko tutore profesionalarekin batera, horrela, programak ezarritako jarduerak egoki garatu ahal izateko.
- Practicumeko eta Titulazioaren Koordinazioko Zuzendaritzaordeak deituriko bileretara joatea.
- Practicuma hobetzeko iradokizunak eta ekarpenak egitea.

#### **2.4.3. Gizarte eta Hezkuntza alorreko Erakundeetako profesional-tutoreen zereginak eta ardurak:**

- Praktiketako ikaslea hartzea, eta ikaslearen jarduerak eta zereginak ikuskatu eta aholkuak emateko jarraipena egitea.
- Ikasleak jarraitu beharko duen kolektiboari buruzko dokumentu teoriko espezifikoak eta ikasleari agintzen zaizkion trebakuntza-ekintzak prestatzeko ikastetxean eskura daitezkeen baliabideak ematea.
- Ikasleak erakundean dauden artean, haien jarduera antolatzea.
- Erakundean izango dituzten zereginen eta arduren berri ematea.
- Tutoreen arteko eta instituzioen arteko koordinazioa sustatzea, Unibertsitateko tutore profesionalarekin batera, horrela, programak ezarritako jarduerak egoki garatu ahal izateko.
- Ikasleari, pixkanaka-pixkanaka, Practicumean egin beharreko zereginak egiteko autonomiaren eta arduraren zentzua barneratzen laguntzea.

- Ahal den neurrian, praktiketako ikasleek erakundeko beste lankideekin lankidetzan jardun dezaten bultzatzea.
- Ikasleak egin behar duen Practicumaren plan orokorraren barruan, berarentzako prestakuntza-ekintza espezifikoak proposatzea.
- Prestakuntza prozesuan zehar, ikaslearen jardunaren indargune eta ahulguneen berri ematea, eta horrekin batera, jarrerak eta praktiken aprobetxamendua.
- Ikasle bakoitzak eskuratutako konpetentzien ebaluazioa osatzeko amaierako balorazioa egitea.
- Practicumean zehar gorabeherarik gertatuz gero, Irakasle Eskolako Praktiketako irakasle-tutoreari eta bere erakundeko koordinatzaileari horren berri ematea.
- Practicuma hobetzeko iradokizunak eta ekarpenak egitea.

## 2.5. Practicum IIIaren garapen faseak

Practicum IIIko konpetentziak eskuratzeko, praktika-aldia baino lehen, praktika-aldiak dirauen artean, eta baita ondoren ere, plangintza egokia egin behar da. Plangintza horretan funtsezkoa da Practicuma banatzen den aldietako bakoitza PRESTATZEKO fasea:

- A) Erakundera joan aurretik, tutore bakoitzak berari esleitutako ikasleekin lan-bilkura bat egingo du, Practicumaren inguruko arau- eta antolakuntza-kontuak argitzeko, practicumeko lan-plana kontrastatzeko, eta lan-eremua prestatzeko. Oso garrantzitsua da saio hori egiten denerako ikasleek Practicum IIIaren gida irakurrita izatea (Gizarte Hezkuntzako Gradu webgunean, practicum atalean eskura daiteke), horren inguruan izan ditzaketen zalantzak argitzeko. Ikasleei beraien lan-konpromisoa zehazten duen agiria (ikaslearentzako, unibertsitatearentzako eta erakundearentzako kopiak), ikasleen fitxa eta erakunde laguntzailearentzako aurkezpen-gutuna banatuko zaizkie.
- B) Practicum-aldian zehar, ikasleek erakundeak proposaturiko lan-dinamikan parte hartuko dute, eta lau mintegi egingo dituzte unibertsitatean. Jarraian, ikasleek egin beharko dituzten jarduerak azalduko ditugu, labur:
- a. Erakundeetan:
- Egoera aztertzeke eta zer pentsatua ematen dizuten gauzak idazteke, esperientziari buruzko informazioa jasotzea (**1. Eranskina: I. eta II. Gidak**). Oso garrantzitsua da mintegietan aztergai eta eztabaidagai izan daitezkeen esperientzien berri jasotzea (gorabehera kritikoak, egoera gatazkatsuak, kasuak...), horrela, partekatutako ikaskuntza-prozesua bultzatuko delako.
  - Erakundeak agindutako zereginetan era aktiboan eta konpromisoaz jardutea.
  - Erakundearekin adostutako esku-hartze proiektua diseinatu, txertatu eta ebaluatzea.
- b. Unibertsitateko mintegietan
- Mintegi horietan, ikasleak garatutako esperientziaren inguruko ikaskuntza hausnarturako eta kritikorako ingurunea eratu nahi da. Horretarako, hezkuntza-praktikaren zentzutik abiatuta, ikasleek esparru eta erakundeetan barneratutako esperientziak partekatu, kontrastatu eta aztertu egiten dira.
- c. Practicuma amaitzean, ikasleek Amaierako Memoria eman beharko dute, honako agiri hauetan oinarrituta: *“Zer pentsatua ematen duten gauzak apuntatzeko Gida”* (1. eranskina: II. Gida); *Ikasleek euren burua ebaluatzeke Gida* (1. eranskina: III. Gida); eta Agiri profesionalizatzaileak.

**Amaierako Memoria horrek honako atalak izango ditu, gutxienez:**

1. Sarrera (Memoriaren aurkezpena)
2. Practicum IIIan izan dudun prestakuntza-esperientzia:
  - 2.1. Testuingurua (esparruaren, erakundearen eta kolektiboaren ezaugarriak, erakundean garatzen diren programak)
  - 2.2. Programa (zein proiektutan edo programa/proiektutan parte hartu den eta izandako eginkizunak eta egindako lanak).
  - 2.3. Prestatu eta txertatutako proiektua.
  - 2.4. Jasotako informazioaren azterketa, eta informazio horren interpretazioa, erakundean nahiz praktikak aztertzeko mintegietan landutako planteamendu teoriko-praktikoetatik abiatuta.
  - 2.5. Azterketaren ondorioak.
  - 2.6. Practicumean izan dudun prestakuntza-esperientziaren balorazioa.
3. Praktika-aldiko nire prestakuntzari buruzko hausnarketa.
  - 3.1. Atzera-begirada: Practicum I, II eta III
    - 3.1.1. Parte hartu dudun esparru eta erakundeen testuinguruaren azalpen txikia.
    - 3.1.2. Prestakuntza-esperientzia bakoitzaren ezaugarri komunak eta bereizgarriak.
    - 3.1.3. Nola ikusi dut neure burua prestakuntza-prozesuan?
    - 3.1.4. Nire prestakuntza-esperientzian garatutako alderdiak (ikaskuntzak, konpetentziak, aurkitutako zailtasunak, horiek gainditzeko moduak).
  - 3.2. Etorkizunerako begirada.
    - 3.2.1. Gizarte-hezitzaile gisa etorkizunean neure buruari ezarritako erronkak.
    - 3.2.2. Practicumari eta Gizarte Hezkuntzako Graduri buruzko hausnarketa eta hobetzeko ildoak.

## 2.6. Temporalizazioa

1. astea (Urtarrilaren 27tik 31ra)	Aztertzeko lehen mintegia
2.etik 4. erako asteak (otsailaren 3tik 21ra)	Premiak antzematea Erakundeko jardueran parte hartzea
5. astea (otsailaren 24etik - 28era)	Aztertzeko bigarren mintegia: premiak lantzetik proiektua lantzerara
6. eta 7. asteak (martxoaren 3tik 14era)	Proiektua prestatzea Erakundeko jardueran parte hartzea
8. astetik 14.era (martxoaren 17tik maiatzaren 2era)	Proiektua txertatu eta ebaluatzea Erakundeko jardueran parte hartzea
10. astea (apirilaren 7tik 11ra)	Praktika-aldia aztertzeko 3. mintegia: proiektuaren txertaketaren jarraipena egitea
12. eta 13. asteak (apirilaren 21tik maiatzaren 2ra)	4. mintegia: proiektua ebaluatzea
15. astea (maiatzaren 12tik 15era)	5. mintegia: practicumaren amaierako hausnarketa egiteko jarraibideak (jarraibideak hasieratik dituzte)

### 3. EBALUAZIOA

Prozesuan parte hartzen duten pertsona guztiek Practicumaren lorpenak eta zailtasunak baloratzeko aukera izatea da ebaluazioaren helburua.

**a) Ikasleen prozesua eta errendimendua ebaluatzeko**, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- Ordu-tegiak egoki bete ote dituen
- Erakundearekiko ardura- eta inplikazio-maila
- Zereginak hartzean adierazi duen ekimen-maila
- Diseinatu eta txertatutako proiektuaren kalitatea
- Lan-bileretan parte hartzeko, oharrak nola prestatu dituen.
- Lan-bileretan sortutako ekarpenak nola jaso dituen; erakundearen egindako lanari eta gizarte-errealitateari buruzko hausnarketak.
- Topaketan harira, zer-nolako hausnarketak, galderak eta planteamenduak egin dituen
- Garatutako lan idatzian adierazi duen azterketaren eta hausnarketaren sakontasuna.  
Honako baliabide hauek erabiliko dira:
- Ikasleak praktika-aldia egin duen erakundeko profesional-tutoreak emandako ebaluazio-txostena
- Ikasleak emaniko agiriak (prozesuari buruzko karpeta)
- Autoebaluazioa
- Unibertsitateko irakasleak egindako ikasleari buruzko txostena.

Unibertsitateak eta erakunde laguntzaileko profesionalek emandako lan-proposamena eta tutoretza-prozesua ebaluatzeko prozesua ere egongo da.

#### **Ebaluatzekoaldiak**

Lan-proposamenaren ideia-ardatzekin bat, ebaluazio-sistema prozesu etengabea izango da, eta ikasleengan sumatzen den bilakaera izango da funtsezko elementua. Gainera, mintegian ebaluazioari eskainitako lan-saio berezia izango da. Talde bakoitzak zehaztuko du noiz izango den hori.

#### **Azken kalifikazioa:**

Praktika-aldia amaitu ondoren emango den kalifikazioak ikasleek prestakuntza fase horretan eskuratutako kompetentziak islatuko ditu, ahalik eta modu ekitatiboenean. Ebaluazioa prozesu partekatua delako ideian oinarrituz, Practicumeko protagonistek eurek (ikasleak, unibertsitateko tutoreak eta erakundeko tutoreak) hartuko dute parte kalifikazioak zehazteko prozesuan. Nolanahi ere, Practicum leko irakasle-taldeak jakinaraziko die ikasleei zein diren adostutako kalifikazio-ehunekoak.

### 4. BIBLIOGRAFIA

LA Torre, Antonio (2003-2007-4.ed). *La investigación acción. Conocer y cambiar la práctica educativa*. Barcelona: GRAO.

Bolívar, Antonio & Pereira, Miguel Ángel (2006). "El proyecto DeSeCo sobre la definición y selección de competencias clave". En RYCHEN, Dominique Simone y SALGANIK, Laura Hersh (eds.): *Las competencias clave para el bienestar personal, social y económico*. Málaga: Aljibe

Elliot, John. (1990). *La investigación-acción en educación*. Madrid: Morata.

Carr, Wilfred (1993). *La calidad de la enseñanza e Investigación-acción*. Sevilla: diada Editora.

Schön, Donald (1987). *La formación de profesionales reflexivos. Hacia un nuevo diseño de la enseñanza y el aprendizaje en las profesiones*. Bartzelona: Paidós Educación - MEC

Stenhouse , L. (1987). *La investigación como base de la enseñanza*. Madril: Morata.

Agiri profesionalizatzaileak. Kode deontologikoa, gizarte-hezitzailearen eginkizunak eta kompetentziak

<http://www.eduso.net/archivo/index.php?c=27>

[http://www.ceespv.org/web/documentos\\_pro\\_view.php?categoria=68](http://www.ceespv.org/web/documentos_pro_view.php?categoria=68)



## 5. ERANSKINA

### ***Behaketa egiteko eta oharrak hartzeko gidak***

“Norberak dakienetik urrundu, norberaren ezagutzari buruz hausnartu ahal izateko” dio esamoldeak. Idazketa da ariketa hori egiteko aukera ematen digun baliabideetako bat. Osterantzean, zaila gertatuko litzaiguke gehien interesatu zaigunaz pentsatzea eta horren berri ematea.

Idazketak “egiteko aukera eman behar digu”, hau da, esan nahi dugunari forma emateko balio behar digu. Taldeari zer adierazi nahi diozun gogoratzeko eta material landu samarra edukitzeko, ohar-koaderno (koaderno hauxe bera erabil dezakezu) eta boligrafoa beharko dituzu. Biak eramango dituzu aldean Practicumean zehar. Dokumentazioa eta bileretara eramango duzun materiala gordetzeko karpeta bat ere ez zaizu txarto etorriko.

Jarraian aurkituko dituzun “gidek” lan-sistema eskaintzeko helburu bakarra dute. Zuri bururatzen zaizun beste edozein, edo gustura egon zaitezkeen beste edozein ere egokia izan liteke. Osorik erabili edo zati bat soilik erabiltzeko aukera duzu. Eta, jakina, guk eskaintzen dizkizugun ereduetan agertu ez arren, egoki deritzozun guztia erants dezakezu. Ereduak kontakizuna taxutzen laguntzea dute helburu, ez besterik. Azken batean, bilaketan jarraibideak eskaintzea eta, formula zehatzetara itzuliz, informazioa ematea, kontatzea eta hausnartzea aipatzen dugunean zer esan nahi dugun argitzea da helburua.

### **1. EGOERAREN AZTERKETARAKO DATUAK BILTZEKO BEHAKETA GIDA**

Gogoan izan gizarte- eta hezkuntza-errealitatearekin kontaktuan zauden aldian laguntzeko gida dela hau: errealitate hori nolakoa den, bertan nola lan egiten den, zer zailtasun dituen, zailtasun horiek nola ebazten diren... jakiteko hainbat erregistro izatea da asmoa. Ez dezagun ahaztu, beste edozein gidak bezala, honek ere ez dituela jasotzen Gizarte Hezkuntza alorreko lanaren errealitatea osatzen duten alderdi guztiak. Datuak biltzeko eta lan-esparru hori behatzeko bide posible bat zehazten du; hori baino ez. Horregatik, ideiak eman edota gizarte-hezkuntzak edo guk geuk arlo profesional horretan izan dezakegun zereginaz hausnartzen laguntzen diguten beste adierazle batzuei ere erreparatu behar diegu (agiri idatziak, liburuxkak, iruzkin informalak, oharrak, inpresio pertsonalak...). Ildo beretik, kontuan izan behar dugu gizarte-alorrari buruzko datuak bildu nahi baditugu, horren inguruko galderak egitea dela biderik egokiena. Halere, galderak zehazteko unean, nahi izanez gero, gida hau erabil dezakegu landuko ditugun eremuen erreferentzia gisa.

## LAN ESPARRUAREN EZAUGARRIAK

- **ERAKUNDEA/ELKARTEA/PROGRAMA/ENTITATEA:**
  - Nolakoa da lan-esparrua (nor hartzen dute, zer helburu edo asmo dituzte, zer lan egiten dute hezitzaileek) eta nolako esku-hartzea egiten dute euren jardueraren helburu diren pertsonekin (zer arreta-mota eskaintzen dute)?
  - Esparru horretan ari diren profesionalek behar dituzten trebetasunak.
  - Profesionalen arteko lan-moldeak (profesionalen arteko harremanak) esparru horren barruan, eta beste esparru batzuetako profesionalekin, beste Erakunde batzuekin, eta abar.
  - Harremana inguruarekin: komunitatea. Zer harreman mota dute (distantzia, lankidetzatza), eta zer mailatan?
  - Beste erakunde, organismo batzuekiko harremana. Nazioartean, Europako Programetan parte hartzen du? Nazioarteko sareren bateko kidea da?
  - Erakundearen barruko egiturak, eta antolakuntza-eredua (hierarkia, koordinazioa, kudeaketa-erak, komunikazio-prozesuak, barne-araudiak...).
- **JARDUERAREN XEDE DIREN PERTSONAK:** Ezaugarri psikosoziologikoak (adina, sexua, hizkuntza, gizarte-jatorria eta jatorri geografikoa...) eta berezitasunak.
  - Pertsona xedeei prestakuntza-ekintzan duten parte-hartzea. Programan/ekintzan dagoen inplikazio-maila, parte hartzeko bideak...
- **ZER BALIABIDE BEHAR DA ETA ZER BALIABIDE DAGO:**
  - Baliabide ekonomikoak (diru-laguntzak), giza baliabideak, eskualde-baliabideak... eskuratzeko moduak.
  - Eskura dauden espazio-baliabideen eta baliabide ekonomiko, material eta pertsonalen ezaugarriak. Baliabide horiek lan-dinamikan eragiten dituzten zailtasunak eta eskaintzen dituzten aukerak.
  - Zabalkunderako materialak: aldizkariak, liburuak, zirkularrak, publizitatea... Hedabideen erabilera (prentsa, irratia, TB, zinema, Internet...).
- **ESKU HARTZEKO PROZESUAK PLANIFIKATZEKO, ABIAN JARTZEKO ETA EBALUATZEKO PROZESUAK:**
  - Esku-hartzearen xede diren pertsonen arreta zuzena eskaintzen ez zaienean, zertan ematen den lan denbora eta zer jarduera egiten den (prestakuntza, koordinazioa,...).
  - Jarduerak prestatzeko moduak (taldeka, banaka, malgutasun-maila, tokiko esparruarekiko harremana...).
  - Esku-hartzearen xede diren pertsonen harremana: elkarrekintzaren nolakotasuna, harreman motak (eguneko eta asteko ordutegiak, urteko egutegiak), harreman estiloak (elkarrekintzakoa, zuzendua, zuzendu gabea), diziplina, arauak ezartzea, funtzionamendu-arau orokorrak.
  - Esku-hartze prozesuaren hurbilpena: ezaugarri metodologikoak eta zereginak nahiz ekintzan bete beharreko rolak zehazteko erabiltzen diren jarraibideak.
  - Ebaluazio-sistema: ebaluatzen diren alderdiak (prozesua, antolakuntza-lanak, erakundeko dinamika,...), prozesuaren ezaugarriak, erabilitako teknikak, ebaluatzen diren uneak (diagnostikoa, jarraipena, azken balorazioak), txostenak aurkeztea.

- **PROFESIONALAK AUKERATU ETA PRESTATZEKO MODUA:**
  - Langileak (profesionalak nahiz boluntarioak) aukeratzeko irizpideak. Irizpideak ezartzeko eta gauzatzeko arduradunak.
  - Nola lantzen dute etengabeko prestakuntza esparru horretan lan egiten duten profesionalak?
  - Nola lantzen dituzte boluntarioak prestatzeko sistemak (finantzazioa, edukiak, arduradunak, prestakuntza-aldiak, egiten duten lanaren jarraipena)?
- **IKERTZEKO PROZESUAK ESPARRUAN ETA ERAKUNDEAN:**
  - Ikertzen ari diren alderdiak. Horretarako erabiltzen dituzten azterlanak.

## II. PROIEKTUA GARATZEKO GIDA

<b>Justifikazioa</b>	Garrantzia, premia, proiektuaren arrazoia, zer ekarpen egiten duen...
<b>Helburuak zehaztea</b>	Zer lortu nahi da esku hartzeko proiektuaren bidez.
<b>Esku hartzeko estrategiak</b>	Zer ekintza edo zeregin bete behar da.
<b>Ekintza-plana</b>	Zer ekintza-plan, nola banatu, zer epetan (kronograma).
<b>Baliabideak</b>	Zer giza baliabide, baliabide material, azpiegiturakoak, ekonomikoak... behar dira proiektua txertatzeko.
<b>Ebaluazioa</b>	Zer ebaluatu, nola ebaluatu, noiz ebaluatu...
<b>Bibliografia</b>	Erreferentzia bibliografikoak, webgrafia...

## III. ZER PENTSATUA EMATEN DIZUTEN BESTE KONTU BATZUK IDAZTEKO GIDA.

ADIBIDEZ, hezitzaileei arretaz entzuten diedanean, prestakuntzako mintegietara joaten naizenean, erakunde bati buruzko informazioa jasotzen dudanean, gainerako kideekin mintegian partekatu eta eztabaidatzen dudanean, beste pertsona, egoera edo hedabide batzuekin harremana dudanean... neure burua kokatuko dut, honako gauza hauetan pentsatuz:

Zer gustatu zaidan eta zer ez. Zerk harritu nauen. Zerk iradoki, blokeatu, kezkatu nauen. Zerk eragin dizkidan zalantzak edo galderak. Zeri buruz eztabaidatu nahi nukeen. Zeri buruzko informazioa jaso nahi dudan. Nola sentitu naizen egoera horretan. Zer ez dakidan interpretatzen. Hainbat gauzari buruzko iritzia. Zer egiten ikasi behar dudan. Zer bururatu zaidan. Zer egiten zaidan erraza edo zaila. Zeren zergatia ulertu dudan. Zeri buruz hitz egin behar dudan. Zeri iritzi diodan interesgarria. Zeri buruzko artikulua interesgarria aurkitu dudan. Zeri buruz irakurri nahi dudan. Telebistan ikusitakoak zer iradoki didan. Irratian entzundakoak zer pentsarazi didan. Zer azaldu didaten. Zer aztertu nahi nukeen berriro. Zer prestatu dudan. Taldean zer esku-hartze izan dudan. Zer sentitu dudan. Zer ikusi dudan. Zer egin dudan erraz eta zer zail. Zer ez nuen espero. Topaguneetan izandako jarrera dela-eta, zer pentsatu dudan.

Zer egoeratan ez dudan jakin zer egin. Zer erantzun eman dudan. Lanaren aurrean zer aukera dudan.

#### IV. IKASLEEK EUREN BURUA EBALUATZEKO BALIABIDEA

Baliabide hau erabiliz, prestatze bidean dagoen hezitzaile gisa Gizarte Hezkuntzako alorrearekin izan duzun harremanean jarraitutako prozesuari buruzko zure pertzepzioa jasotzen ahalegindu behar duzu. Baliabidea lehen unetik erabiltzeko aukera duzu; izan ere, hasiera-hasieratik erabil dezakezu, zeure prozesua behatu, lan-jokabideak zuzendu eta ildo egokiak finkatzeko. Beraz, zer egiten duzun eta nola egiten duzun aztertu eta birbideratzen lagunduko dizun tresna bat eskaintzen dizugu. Gainera, ebaluazio-saioan parte-hartze aktiboa izaten ere lagun diezazuke.

1. Zer pertzepzio duzu gizarte-errealitatearekin izan duzun harremanari buruz, honako enuntziatu hauetako bakoitzean? (Idatzi enuntziatu bakoitzean zer iritzi duzun):
  - Prestakuntza-esperientziari buruzko datuak jasotzeko ohitura.
  - Datuak egunero sistematizatu eta horien inguruan hausnartzeko izan dudan diziplina.
  - Nola prestatu ditudan errealitate profesionalaren ezagutzan sakontzeko aukera emango zidaten galderak.
  - Bildutako materiala egoki prestatzea, mintegiko saioetan aurkeztu eta kontrastatzeko.
  - Mintegiko saioetan eta profesionalekin izandako topaketetan beste gizarte-errealitate batzuei eta beste lan-molde batzuei buruz jaso ditudan datuen bilketa.
  - Mintegietan izan dudan parte hartzea, ideiak, hausnarketak edota zalantzak aurkezten.
  - Ikaskideekin izan dudan jarrera, laguntzekoa ala ez, gizarte-jardunari buruzko ezagutzak sistematizatzeari buruz.
  - Ikaskideek mintegi-saioetan aurkezturiko ideiei buruzko hausnarketa, eta nola erabili ditudan errealitate profesionala hobeto ezagutzeko.
  - Mintegiko saioetan eta aukeratutako erakundeari egindako bisitetan jasotako ideiak eta ekarpenak idatziz eta era antolatuan jasotzeko ohitura.
  - Iturri osagarrien bidez (hedabideak, testuak, elkarrizketa informalak...) jasotako beste gai batzuk nola erabili ditudan.
  - Erakundearekin eta Unibertsitateko tutorearekin izan dudan harremana.
  - Topagune eta mintegietan parte-hartze aktibo eta konprometitu izan dudan ala ez.
2. Praktika-aldian zehar, nola sentitu naiz?
3. Epealdi horretan konturatu naiz honako nolakotasun/gaitasun hauek gizarte-hezitzaile lanetan lagun diezadaketela.
4. Prestakuntza-prozesuan zehar, zailtasunak eta hutsuneak antzeman ditut niregan; honako hauek, hain zuzen:
5. Nire zailtasunak kontuan hartuta, zertan sakondu behar dut.
6. Oro har, zer ikasi dut prestakuntza-prozesu horren bidez (errealitatearekiko kontaktua, banakako eta taldekako hausnarketa).

7. Nire ustez, hainbat kontu aurreko galderetan jaso gabe gelditu dira, eta azpimarratu beharrekoak dira, jarraitu dudan prozesua argitzen lagun dezaketelako. Honako hauek dira gai horiek:
8. Jarraitu dudan prozesuan oinarrituz, honako **kalifikazioa** ezartzen diot neure buruari (idatz ezazu jarraian datorren espazioan, 1etik 10erako puntuazioaren bidez): \_\_\_\_\_

## V. LAN PROPOSAMENA ETA TUTORETZA PROZESUA EBALUATZEKO BALIABIDEA

Baliabide horren bidez, Practicumaren ikuspegi orokorrari buruz, lan-proposamenari eta haren garapenari buruz, eta gizarte-errealitateko lan-esparruan izan duzun harremanari buruz zer pertzepzio duzun jaso nahi da.

Garrantzitsua da esanguratsua iruditzen zaizun guztia idaztea, hobetzeko bidea eskainiko digulako.

### A. IDATZIZKO LAN PROPOSAMENARI BURUZ:

1. Zer iritzi duzu Practicumerako lan-proposamenaz? Esan zer iritzi duzun honako alderdiei buruz:

- Prestakuntza-aldi honetarako ezarritako helburuen eta horretarako zehaztu den prozesuaren arteko koherentzia.
- Practicumaren jarduerak garatzeko ezarri den denbora-banaketa.
- Hausnarketa egiteko, argudiatzeko eta "besteekin" elkarrizketa sustatzeko proposatu diren jardueren egokitasuna.
- Behaketa, hausnarketa, lankidetzeta eta ebaluazioa lantzen laguntzeko eman zaizun agiriaren kalitatea eta interes praktikoa.
- Mintegiaren egitura eta bertan erabilitako lan-sistema.
- Aukeratu den erakundeko egoeraren azterketa egiteko proposamena.
- Hainbat zereginen bidez, praktika profesionalari buruzko informazioa jasotzeko, horren inguruan hausnarketa eta azterketa kritikoa egiteko prozesua egituratzen duen karpeta aurkezteko proposamena.
- Proposaturiko ebaluazio-sistema.

2. Nire iritzian, alderdi batzuk aipatzeke gelditu dira, eta aipatu beharrekoak direla uste dut. Honako hauek dira:

### B. MINTEGI SAIOETAN EGINDAKO LANARI ETA BERTAN ESKAINI Z Aidan TUTORETZA LANARI BURUZ:

1. Zer iritzi duzu tutorearekin eta ikaskideekin egindako mintegi-saioei buruz? (Esan zer iritzi duzun alderdi hauei buruz):

- Proposamena argitzea, hobeto ulertzeko.
- Prozesuan eman diren jarraibideak eta zereginen jarraipena.
- Mintegietan sortu den elkarrizketa hausnartzailerako giroa.
- Pertsona guztien parte-hartze maila.

- Mintegiko saioen dinamizazioa.
- Saioetan teoriaren eta praktikaren artean izan den lotura.
- Mintegi-saioen iraupena.
- Lan profesionalaren esparru horri buruzko ezagutza praktikoa eraiki eta kontrastatzeko lana.

2. Nire iritzian, alderdi batzuk aipatzeke gelditu dira eta aipatu beharrekoak direla uste dut. Hauek dira:

#### C. HARREMANA IZAN DUDAN ERREALITATEARI BURUZ:

1. Zer deritzozu aukeratutako erakundearekin izandako harremanari? (Esan zer iritzi duzun alderdi hauei buruz):

- Erakundeari buruzko informazioa biltzeko, Erakundeak ni hartzeko prozesuaren unea eta ezaugarriak.
- Eman dizkidaten materialak, agiriak edo jarraibideak, horien bidez erakundea eta beraren lan-moldeak hobeto ezagutzeko.
- Erakundeko arduradunarekin izandako harremana eta elkarrizketa, abian jartzen dituzten prozesuak hobeto ulertzeko.

2. Nire iritzian, alderdi batzuk aipatzeke gelditu dira eta aipatu beharrekoak direla uste dut. Hauek dira.